

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko martxoaren 29a. VIII. urtea. 2.200. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Osasun publikoaren alde sinadura bilketa egingo dute


'Tolosaldea osasun publikoaren alde' herritar plataforma sortu dute; aurkezpenean, alderdi politikoekin biltzeko asmoa azaldu dute 02

## Nagusietan galdu arren, Zazpi Iturrik irabazi du Berria Txapelketa

Uharte Iruñearen aurkako finalean gazteek maila bikaina erakutsi dute; kadeteek 22-10 irabazi dute, eta jubenilek 22-6 07

## Leaburuko Ostatur Peñascal Fundazioak kudeatuko du

Hamar urteko alokairua bost urte gehiagoz luzatzeko aukera edukiko du 03



### → Tolosako Emeterio Arreseko haur parkea berritzen.

Aurretik hilabeteko lana dutela esan dute udaletik. Parke berriak 250.000 euro inguruko kostua edukiko du. Zoru berria ere jarriko dute, Foru Etorbideko parkean dagoen material berarekin egina 03



HITZAK harpidedunentzat  
3 diska ditu


**Peachy Joke**  
taldearen  
Asian Tiger Mosquito



HITZAK harpidedunentzat  
bi sarrera pare ditu

**Izaro eta Elene**  
Batera Live  
ikuskizunerako

Apirilak 1 • Ostirala  
20:30ean • Tolosako Leidorren



HITZAK harpidedunentzat  
bi sarrera pare ditu

**Ateka Rock**  
jaialdirako

Apirilak 2 • Larunbata • 20:30ean  
Leitzako Kiroldegian



sarrerak

# Urtegiak



## Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga  
Biologoa

Gure paisaia ohikoak bihurtu diren ingurune artifizialak dira urtegiak. Praktikan, ibai bati oztipoa ipini eta lur eremuak urez estaltzean datza, modu honetara, likido urri eta beharrezkoaren erreserba bat egiten da. Nahiz eta gurean beti euripean egoten garen, tartean ur eskasia pairatzen dugu... kontrasesan bikaina ezta?

Naturazale, pseudoekologista eta ekologista peto ugari etorri zaizkit urtegiaren aurka hitz egiten, guztiek argumentu bera zeukaten, urtegiak lur eremu naturalak urpean ipintzen dituela esanez... eta ez dute arrazoi faltarik! Baina, bada urtegiaren alderdi txar bat oso jende gutxi oharitzen dena eta eragin zuzenak dituen ibaian bertan eta ez urpean geratutako lurretan.

Azken finean urtegi bat, ibai eraldatu bat da. Hasieran azkar eta bizi-bizi zioan ur korrantea, ur masa geldo eta handi bat bihurtzen da. Ur masa handi eta geldo hau, urtean zehar eguzkiak berotzen du, batez ere udan, urtegiaren gainazaleko ura berotuz. Hazerik ezean, goiko ur geruza bero hau ez da beheko ur geruzarekin nahasten, honela, tenperaturaren aldetik oso desberdinduta dauden bi ur geruza sortuz: gaina-

zaleko beroa eta sakoneko hotza. Gainazaleko ur beroak, airearekin kontaktu zuzena dauka eta oxigenoa lapurtu ahal dio aireari, ur ongi oxigenatua bihurtuz. Baina sakonean dagoen ur masa hotzari ez zaio hau gertatzen, ez du ez argirik eta airearik ukitzen, eta poliki-poliki oxigenorik gabeko eta usain txarreko ura bihurtzen da, beti ere, haize indartsu batek ez badu nahasten goiko ur geruzarekin.

Urtegiaren ate sistemak urtegiaren azpian irekitzen dira normalean, justu beheko ur masa hotzean. Urtegitik ateratzen den ur hau, beraz, ibaian normalean doan ura baino askoz ere hotzagoa da eta hau gutxi balitz, bat-batean askatzen da.

Ibaian bizi diren bizidunentzat hau erabat kaltegarria da, harrien gainean bizi diren xomorroak, bapateko ur hotz honek arrastan eramaten ditu eta ibaiako ur tenperatura kolpetik jaisten da.

Pentsatuko duzue ea xomorro txiki hauek zer ikusi duten ibaiarekin. Xomorro txiki hauek uretako izokin, amuarrain, hegazti eta hainbat bizidunen elikagai kateko ezinbesteko kideak dira eta kate konplexu honetan, katebegi bat desagertzean kate osoa apur daiteke. Gure ibaiak bizidunrik gabeko ur korrante xumeak bihurtzen dira. Noski, alboan bigorri polit batekin! Zeinen natura zaleak garen.

Azkenik, dakizuen bezala, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan neure bloga zuzentzako irekita, <http://bioaniztasunetik.blogspot.com> eta neure e-posta ere bai [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com), gainera facebook-en bila dezakezue bioaniztasunetik.



Ibilur da Tolosaldeko urtegi bakarra. ENERITZ MAIZ

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Jende asko izan zen 'Tolosaldea osasun publikoaren alde' plataformak emandako prentsaurrekoan. ITZEA URKIZU

# Hainbat eragilek 'Tolosaldea osasun publikoaren alde' plataforma sortu dute

Plataformak firma bilketa egingo du apirilaren 2tik aurrera; gainera, banderolak jarriko dituzte salgai

**Maier Ugartemendia** Tolosa

Osasun publikoa defendatzeko *Tolosaldea osasun publikoaren alde* izeneko plataforma osatu dute hainbat eragilek: Amartz auzo elkarte, Arpegi, Berdinbide, Bilgune Feminista, Bombereña, CCOO, ELA, Euskal Herria Sozialista, Ezker Abertzalea, Herria Abian, LAB, Osasun Publiko-ko langileak, Tolosako denborabankua eta Zahartzaro Duinaren aldeko plataformak. Plataforma larunbatean aurkeztu zuten jendaurrean, prentsaurreko baten

bidez. Gainera, prentsaurrekoan datozen hilabeteetarako hainbat ekitaldi antolatu dituztela ere azaldu zuten.

Plataformak «Tolosaldea, Euskal Herri osoan, osasun sare publikoaren barnean, eskualdeko ospitale bat ez duen eskualde bakarra» dela salatu zuen. Tolosaldeak eskualdeak zituen beharrei erantzuten zien Espezialitateen anbulatorio bat zuten arren, honen «desagerraraztearen joera» nabaria dela ere adierazi zuten. Urologia edo oftalmologia espezialitateak, esate baterako, lekuz aldatu dituztelarik.

Bestalde, Osakidetza Tolosaldearekin «zorra» duela ere esan zuten. «Tolosaldeko bizilagunek Osakidetza gainontzeko euskal herritar guztiek bezala» ordaintzen badiete ere, zerbitzua «eskasago» dela ziurtatu zuten.

Plataformak zentro publiko batek eskaintzen duen zerbitzua, zentro pribatu batek ematen duena baino «hobe» dela esan zuten. Baita «justuago» ere, zentro pribatua, «etekin ekonomikoa lortzeko» bideratuta baitago. Azkenik, gainontzeko eskualdeek duten moduan «eskualdeko ospitale publiko eta behin betiko bat» ere eskatu zuten.

Datozen hilabeteetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Esate baterako, laster, balkoietan jartzeko osasun publikoaren aldeko banderolak jarriko dituzte salgai, 5 eurotan. Apirilaren 2an Tolosako Trianguloan eta 16an Ibarra, firma bilketa bat egingo dute. Maiatzaren 5ean, mahai inguru bat egin nahi dute alderdi politikoko guztiek. Eta, 14an manifestazioa egingo dute, 12:00etan, Trianguloatik abiatuta.

# Adimen emozionala zer den ikasteko tailerra antolatu dute

**M. U.** Leitz

Denok Bat Guraso Elkarteak *Komunikazioa familian* izeneko hitzaldia eta adimen emozionalari buruzko tailer bat antolatu ditu, datozen asteetarako.

*Komunikazioa familian* hitzaldia hilaren 31n, ostegunean, izango da. Hitzaldia eskolako liburutegian egingo dute, 17:00etan. Hilaria Gabi Goia Iparragirre izango da, eta komunikazioa zer den azalduko du. Eta, komunika-

zioa oztopatu eta erraztu dezaketen elementuei buruz ere hitz egingo du. Hitzaldia irekia izango da.

Adimen emozionalari buruzko tailerra ere, Denok Bat Guraso Elkarteak antolatu du. Bertan, adimen emozionala zer den eta zertarako erabil daitekeen ikasi ahal izango da. Teoriaren bidez ideia hauek ulertzen saiatuko dira, eta ondotik ariketa praktikoraz batzuk egingo dituzte. Tailerrak apirilaren 15, 22 eta 29an izango

dira, 15:00etatik 16:30era. Tailer hau ere Gabi Goia Iparragirrek emango du, eta eskolako jantokian izango da.

Ikastaroaren prezioa 5 eurokoa izango da, eta lehendabiziko saioan kobratuko da. Izena emateko epea hilaren 30ean, asteazkenean, amaituko da. Eta, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako eraikinetako sarreretan jarriko diren orrietan edo [denokbatge@hotmail.com](mailto:denokbatge@hotmail.com) helbidetan eman ahal izango da.

# Kutsadura %20 murrizteko akordioa sinatu du udalak

Jokin Bildarratzek Alkateen Ituna sinatu du Energiaren Euskal Erakundearen ordezkariaren aurrean

Asier Imaz Tolosa

Atzo sinatutako akordioaren ondorioz, Tolosako Udalak etxeko lanak jarri dizkio bere buruari. 2020. urterako, energia kontsumoa eta emisio kutsagarriak %20ean murriztu beharko ditu.

Energiaren Euskal Erakundeak zuzentzen du Alkateen Ituna ekimena, Europako Batzordearen laguntzaile moduan. Bere helburua energia iraunkorraren aldeko urratsak ematea da, besteak beste, klima aldaketari aurre egiteko.

Alkateen Ituna sinatzen duten udalek hainbat konpromiso hartzen dituzte. Besteak beste, CO2 emisioak gutxienez %20 murrizteko. Horretarako, energia-eraginkortasuna %20 hobetu eta energia-eskariaren %20 energia berriagarrien bitartez ase edo beteko luke.

Hitzetatik ekintzetara pasatze-

ko, honako jarduera hauek garatu beharko ditu Tolosako Udalak:

1. Energia Iraunkorra Sustatzeko Ekintza Planaren oinarri gisa, erreferentzia emisioen inbentarioa egitea.

2. Energia Iraunkorra Sustatzeko Ekintza Plana aurkeztea urtebeteko epean, Alkateen Ituna sinatzen duten egunetik kontatzen hasita.

3. Udalaren egiturak egokitzea, garatu beharreko ekintzak modu egokian egiteko, nahiko giza baliabideak hautatuz, besteak beste.

4. Ekintza Planaren garapenean parte hartzeko asmoz, tokian tokiko lurralde esparruetan gizarie zibila mobilizatzea.

5. Jarraipen txostena aurkeztea, Ekintza Planaren ebaluazioa, jarraipena eta kontrola egitea xedea duen txostena bi urtez behin, gutxienez, idatziz.

6. Energiaren Eguna edo Alkateen Itunaren Eguna antolatzea, Europako Batzordearekin eta interesatuta leudekeen beste erakunde batzuekin elkarlanean, energiaren erabilera adimendunak herritarrei dakartzkien onurak eta aukerak zehazki azaltzeko.



EEEren eta Tolosako Udalaren arteko akordioa atzo aurkeztu zuten. A.I.

## Peñascal Fundazioaren esku gelditu da Ostaturia

Erredakzioa Leaburu-Txarama

Leaburu-Txaramako udaletxean ez ohiko batzarra egin zuten atzo. Gai zerrendan, besteak beste, Herriko Ostaturaren kudeaketaren behin behineko esleipena aurkitzen zen. Udal ordezkariak azaldu zutenenez, lehiaketara bi partaide aurkeztu ziren, eta hauetan lehena Peñascal Fundazioa gelditu zen. Gauzak honela, euren esku geldituko da Leaburu Ostaturia,

10 urterako. Ondoren, beste bost urteko luzapena eskatu ahalko dute. Hilean 2.510 euro gehi BEZA ordaindu beharko dio udalari Peñascal Fundazioak, alokairu moduan.

Leaburu-Txaramako Udalak bere aldetik, «laguntza osoa» eskaini die Ostaturia aurrera eramaten saiatuko diren maizterrei. Hauek, berriz, lanean hasten direnean sukalde eskola bat sortzeko asmoa azaldu dute.

## → Laburrak

### Maite Aranalde presoa isolamenduan daukate

**IBARRA** ▶ Maite Aranalde ibar-tar gaztea eta Saioa Sanchez euskal presoak isolamenduan aurkitzen dira protesta baten ondorioz. Espetxean buruturiko mobilizazio baten ondoren, martxoaren 22tik mitardean aurkitzen dira Poitierseko espetxean. Amnistiaren Aldeko Mugimendutik azaldu dutenez, apirilaren 4a arte egongo dira bertan.

### Iñaki Perurenarekin mahai ingurua ostiralean

**IBARRA** ▶ Subegi Kultur Elkarteak mahai ingurua antolatu du apirilaren leian, ostiralean, Subegi elkartean, 19:15ean. Bertan Iñaki Perurena egongo da, eta leitzarrek *Lehen napar euskaldunak, lehen euskal naparrak* gaia aztertuko dute. Herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara. Mahai inguruan parte hartzeko, galderak presaturik eramatea ere eskatu dute.

### Korrika Eguneko bazkarian izena emateko aukera

**ANOETA** ▶ Asteazken honetan, hilak 30, korrika batzordea egingo dute Anoetan, udaletxe-ko aretoan 19:00etan. Aldi berean, Korrika Eguna antolatu dute apirilaren 9an. Egitarauaren barruan, Sarasola sagardotegianegingo duten bazkaria agertzen da. Bazkari horretarako lista Itzuli tabernan jarri dute. Antolatzaileek herritarrek izena ematera eta egunean parte hartzea gonbidatu dituzte.

### Jaiak antolatzeko bilera hilaren 31n, 19:00etan

**ANOETA** ▶ Herriko festak antolatzeko hurrengo bilera martxoaren 31n izango dela jakinarazi dute Anoetatik. Bilerak ostegunean 19:00etan izango da, udaletxean. Jai batzordeak parte hartzeko delia herriko talde guztiei eta herritar orori egin die.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Baserria.** Baserri edo borda bat hartuko genuke alokairuan. Bizileku bezala. Interesatuek deitu 652 71 58 00 zenbakira.

### SALGAI

■ **Altzairuak.** Armairua eta mahai eder bat bere banku eta aulkiekin. Argazkiak ikusgai

# Hilabete barru Emeterio Arrese parkeko lanak amaitzea espero dute

A. Imaz Tolosa

Atzo hasi ziren Emeterio Arrese parkea eraberritzeko lanak. Hilabete inguru iraungo dute obrek eta Lurkoi enpresa arduratuko da hauek gauzatzeko. Zorua Childs-play erakoa izango da, hau da, Foru Etorbidekoan erabilitako material berarekin egina. Egitura guztia metalez eta soke egina izango da. Gehienezko 4,5 metroko altuerako hiru egiturez osatua egongo da hau, eta hiruk lotuta egongo dira. Gehienezko luzera berriz, 26 metrotakoa izango da. Aurrekontua honakoa da: 240.000 euro, BEZ-rik gabe.

Udaletik azaldu dutenez, «multzo konplexu bat diseinatu da,

non elementuak barreiatu gabe, haurrek, gauzak elkarbanatzeko, elkarri eragin, eta talde jokoa sustatzeko aukera dagoen, portaera sozialek bultzatzearekin batera. Haurrak jolastoki, parkeekin batera hazten dira, eta garaian dituzten gaitasunen arabera, erabileraz ezberdina ematen diote honi. Gaitasun hauek hazten doazen heinean garatuz joango dira».

Parkeetan, lurretik gertu dauden elementu horizontalak jartzea garrantzitsua dela diote udaletik, «hauek minusbaliotasun motoreak dituzten haurrentzat egokituak baitaude. Honela, batzuek besteekin jolasteko aukera dute, gune edota elementu bereziak sortu gabe».



## Jone Lozano «indartsu» aurkitu du abokatuak

A. Imaz Areso

Lau egun inkomunikaturik egon ondoren, Jone Lozano iragan ostegunean sartu zuten espetxean. Bere abokatuak jakinarazi duenez, ostegunean pasa zen epailearen aurretik: «Jone sendo eta indartsu dago eta lagun eta familiarri besarkada handi bat bidaltzen dio».

Orain ordea, Fleury-ko (Paris) espetxean aurkitzen da eta elkar-tasuna azaltzeko bertako helbidea zabaldu dute lagun eta senideek. Gutunak bidaltzerako unean, *Ione* idatzi behar dela ere

gogoratu nahi izan dute. Hona hemen helbide osoa: «Lozano Miranda, Ione - 386 917-N-Maisson D'Arr T des Femmes de Fleury Mèrois 9, Avenue des Peupliers. 91705-Saint Genevieve des Bois. Cédex, France».

Bestetik, Aresotik eskerrak eman nahi izan dizkie elkartasuna adierazteko burututako lanuztean parte hartu zuten guztiei, hau da, «komertzio, eskola, lantegi zein Leiza eta Aresoko herritarrei». Azkenik, aresoar gaztearen askatasuna eskatu dute, «baita bere egoera berean aurkitzen diren beste 700 euskal herritarrena ere».

### GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfon-brak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaudete. Interesa dutenek dei dezatela inongo konpromisorik gabe ondorengo telefono zenbakira: 638 94 46 04. Bertan Gurutzerengatik galdetu beharko dute.

[www.iragarkilaburrak.com](http://www.iragarkilaburrak.com) web orrialdean. Interesatuek deitu 629 12 28 61 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Jakan etxebizitza salgai. Aukera paregabea. Erdigunean apartamendu guztiz hornitua. Garage eta trastelekuarekin. Deitu 667 49 25 57 telefono zenbakira.

**Amasa-Villabona**



**JUBILATUEN EGOITZA BERRIKO ATEAK ZABALIK, ALDUDE KALEAN**

Amasa-Villabonako udal ordezkariek ostiral eguerdian zabaldu zuten Jubilatuen Egoitza berria. Villabonako alkateak, Maixabel Arrietak, jubilatuen egoitza berria inaugurazio ekitaldian Josune Arretxe gogoan izan

zuen. Zinegotzi gastea iragan urteko iraillean hil zen, eta bere hutsunea azpimarratu zuen Arrietak, gizarte gaitia. Ondoren, zinta moztu eta jubilatuen egoitza berria sartzeko aukera izan zuten. Asteazaldetik Arkitectura

estudiosak egin duen egoitzako bioko guztiak ezagutu zituzten lurralde eta Alegialdeko alkateak ere bertan izan ziren, gonbidatu gisa. Dagoeneko, herriko jubilatuek badute elkartzeko toki berria. [LEI23](#)

**Anoeta**




**MIKELASAGASTI HERRITARRENTZAT**

Ostiral iluntzean inauguratu zuten Mikelasagasti auditoriuma. Udal ordezkariek batera, hainbat herritar hurbildu zen asia eta kultura ekitaldi eta-erako izango den erakina ikustera. Agurra dantzatzarekin batera, bistanatu zuten sarrean jarri dute emana zuten kastolako arketetan. [LEI23](#)

dantza taldekoak, Peñagarikanoren bertsoak, Gorka Otxoa kultura zinegotzia eta Periko Peñagarikano alkatearen hitzak izan ziren. Bertaratuak, auditoriumaren barnea bete zuten bertsoak, bistanatu zuten sarrean jarri dute emana zuten kastolako arketetan. [LEI23](#)

**Tolosa**



**GAZTEEN ESKARIA BETEZ**

Larunbatean Usabal kiroldegian skate pari berri inauguratu zuten. Skate txapelketaz gain, barbakoa eta bestelako ekitaldiak izan ziren. Ekitaldira, proiektua aurrera eramateko lehen pausoa eman zuten gazteak bertaratu ziren. Bildarratz alkateari Facebook bidetz adieraz zieten, Tolosan skatean antzeko leku baten beharra zutela. Kirola eta aisia uztertzen diren leku honetan, alkateak zaintza azpimarratu zuen: «Guztiona da, eta zaindu egin beharra dago». [LEI23](#)

**Tolosa**



**HAMAİKABATEN EGOITZA BERRIA**

Hamaikabat alderdiak aurrerantzean Tolosan egoitza berria izango du. Gernikako Arbola lorategian dago, eta eskualdeko herri guztientzako izango da. Ekitaldian, Martin Beramendi, Gipuzkoako Hamaikabat alderdiako lehendakaria izan zuten beste hainbat hautagai eta zerrendaburu ere izan ziren. Pello Gonzalez, garur egun, Ogasun diputatua dena eta ahaldu nagusi izateko hautagai dena, eta Tolosa eta Inguruko herrietako alkate zarako hainbat hautagai, besteak beste. [LEI23](#)

**Tolosa**



**BILDARRATZ BERRIZ ALKATEGAI**

Jokin Bildarratz, Plaza Berrian EAJko kideekin batera agertu zen ostiralean. Alde batetik, alderdiako udal zinegotziak aurkitzen ziren, eta bestetik, Markel Olanok Gipuzkoako ahaldu nagusia eta Joseba Egibar Gipuzkoako Buru Batzarreko presidentea. Jokin Bildarratzek azaldu duenez, hurrengo hauteskundeetan Tolosako EAJren zerrendaburu izango da. Markel Olanok ere Gipuzkoako ahaldu nagusi izateko bere burua aurkeztuko duela azaldu zuen. [LEI23](#)

**Tolosa**



**KANTU JIRA ETA BAZKARIA**

Hilabeteko azken larunbata guztietan bezala, Tolosa Kantariko lagunak kantuan atara ziren kalean. 12:00etan Tonito kalean elkaritu eta kanturako lagun izan zituzten Tolosako udal bistulariak. Alde zaharretako kaleak zeharkatu ostean, Oargi Elkartearen bazkaria egin zuten. Kasu honetan, Euskaraenea proiektuaren barnean sartutako ekitaldia izan zen, eta jende asko hurbildu zen. [LEI23](#)

**Tolosa**



**SOZIALIZAZIO ASTEARI, AGUR**

Herria Abian ekimenak antolatutako Sozializazio astearen azken egunean, ekitaldi ugari egin zituzten Tolosan. Goizean, AHTen lanak ikusi zituzten bizikletaz, proiektuaren aurkako jarraitzeekin. Ondoren, bazkaria egin zuten 40 lagun inguruk Oargi elkartearen bazkalostea bertsoez alaiturki. Jarrailan, Tolosako kaleetan barrena, 100 lagun inguruk manifestazioan parte hartu zuten. Zerkausian aldeketa sozialaren aldeko aldarria irakurri zuten, pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera ere izan zen. [LEI23](#)

[www.tosaldea.hitza.info](http://www.tosaldea.hitza.info)

herrietako informazioa inoiz baino gertuago ezagutu gure webgunen berriak

[www.ibarraldea.hitza.info](http://www.ibarraldea.hitza.info) • [www.alegialdea.hitza.info](http://www.alegialdea.hitza.info) • [www.anoetaldea.hitza.info](http://www.anoetaldea.hitza.info) • [www.villabona-aiztondo.hitza.info](http://www.villabona-aiztondo.hitza.info) • [www.leizaldea.hitza.info](http://www.leizaldea.hitza.info) • [www.tolosa.hitza.info](http://www.tolosa.hitza.info)

## Kirolak &gt;

## ↓ Emaitzak



Abel Barriola. HITZA

## PILOTA

## BINAKAKO TXAPELKETA

## Lehen maila

Irujo-Merino II	17
Xala-Barriola	22

## Bigarren maila

Olaetxea-Albisu	22
Apezetxea-Cecilio	19

## BERRIA TXAPELKETA:

## FINALA

## Kadete maila

Uharte	10
Zazpi Iturri	22

## Jubenil maila

Uharte	6
Zazpi Iturri	22

## Nagusi maila

Uharte	22
Zazpi Iturri	11

## PISTAKO TXIRRINDULARITZA

## MUNDUKO TXAPELKETA

## Omnium proba

1. Tara Whitten (23 puntu)
2. Sara Hammer (31 puntu)
3. Kristen Wild (42 puntu)
7. Leire Olaberria (51 puntu)

## SASKIBALOA

## LEHEN MAILA

## Hamabigarren jardunaldia

Take Bidebide Ibiza	58
Mondragon Unibertsitatea	54

## Saikapena

1. Viajes Marfil (9-3)
2. Mondragon Uniberts. (9-3)
3. Bidebide Ibiza (7-5)

## ARETO FUTBOLA

## NAZIONAL A MAILA

## 24. jardunaldia

Zierbena	5
Lauburu Ibarra	1

## Saikapena

1. Zierbena (58 puntu)
2. Atenea Ikusnet (41 p)
3. Lauburu Ibarra (41 p)

## NAZIONAL B MAILA

## 24. jardunaldia

Soloarte	6
Irish Pub Sheperd's	3
Laskorain Ikastola	9
Orioko tabernak	5
Transportes Lakunza	2
Clinica Dental Aldaz	5

## Saikapena

1. Concepto-Createch (64 p.)
2. Laskorain Ikastola (53 p.)
10. Irish Pub Sheperd's (27 p.)
12. Transportes Lakunza (25 p)

## EUSKAL LIGA

## 24. jardunaldia

Tolosala Hirukide	15
Gernika Lagunak-Naturgas	4

## Saikapena

1. Mallabia (50 puntu)
2. Inter Eder Kafet. (48 puntu)
3. Santurtzi (42 puntu)
4. Tolosala (36 puntu)

## FUTBOLA

## ERREGIONAL OHOREZKO

## MAILA

## 27. jardunaldia

Tolosa	0
Aurrera Ondarroa	1

## Saikapena

1. Real Union (61 puntu)
2. Hernani (61 puntu)
3. Pasajes (57 puntu)
9. Tolosa (39 puntu)

## ERREGIONAL PREFERENTEA

## 25. jardunaldia

Intxurre	3
Tolosa 'B'	0

## Saikapena

1. Urola (50 puntu)
2. Elgoibar (50 p.)
3. Mutriku (47 p.)
9. Tolosa B (34 puntu)
12. Intxurre (29 puntu)

# Dominarik lortu gabe itzuli da Leire Olaberria Munduko Txapelketatik

Omnium proban zazpigarren egin zuen ikaztegiatarrek, kanporatze proban erorikoa izan eta gero



Leire Olaberria txirrindulari ikaztegiatarra. I. GARCIA

## Imanol Garcia ikaztegieta

Podioa lortzeko aukerak zituen Leire Olaberria txirrindulari ikaztegiatarrek Munduko Txapelketan, baina zazpigarren postuarekin itzuli da etxera. Holandako Apeldoorn belodromoan jokatu da txapelketa. Omniumeko sei probetatik erlojuaren aurka koetan oso ondo aritu da, baina trolpel guztiak parte hartzen dutenetan ez du fin korritu.

Larunbatean eta igandean jokatu zuten txapelketa. Oso ondo hasi zen ikaztegiatarra, itzuli batego proban lehenengo postua lortuz. Gero, puntuaketan, hemezortzigarren amaitu zuen, eta horrek asko zaildu zuen podioa lor-

tzea. Larunbateko hirugarren proban, kanporatzean, hamahirugarren bukatu zuen. Saikape orokorrean, lehen eguna zortzigarren bukatu zuen Olaberriak.

Bigarren egunean, jazarpenaren eta 500 metrotan oso emaitza onak lortu zituen, baina podioa

oso urruti zuen. Azkenean, scratch proban saiatu arren, ez zuen emaitza onik lortu eta saikape orokorrean zazpigarren bukatu zuen. Orain hilabetez atsedean hartuko du ikaztegiatarrek, eta ondoren hasiko da errepide denboraldirako entrenatzen.

# Alpino Uzturreko eskiatzaileek, emaitza bikainak Espainiakoan

Dominekin itzuli dira Rojo anaiak, Manex Begiristain, Lurdes Irazusta, Ane Gorostegi eta Irati Izagirre

## E. Maiz

Aragoiko Candanchun Iraupen Eskiko Espainiako Txapelketan Alpino Uzturreko eskiatzaileek emaitza ezin hobekak lortu dituzte.

Ostegunean, Sprint lasterketa, estilo klasikoan eta binaka izan zen. Kilometro inguruko zirkui-

tuan buelta bakoitzean beste kideari txanda pasaz, bakoitzak bost buelta egin zituzten. Ioseba eta Imanol Rojo, ezin hobeto moldatu ziren, eta urrezko postua lortu zuten, Aragoi eta Herrialde Katalanetako bikoteen aurretik sailkatuz.

Ostiralean estilo libreko lasterketak izan ziren. Gizonezkoek 10 kilometro egin behar izan zituzten, eta Ioseba Rojok bigarren postua lortu zuen eta Imanol Rojok laugarrena. Master kategorian, Lourdes Irazusta bigarrena izan zen, eta infantil mailan, Manex Begiristain zazpigarrena.

Larunbatean, klasiko estiloko

probak zituzten eta mutilen lasterketa nagusian Ioseba Rojo hirugarren sailkatu zen, eta Imanol Rojok laugarren postua eskuratu zuen. Oraingo honetan, Lourdes Irazusta bigarren eta Manex Begiristain, hamargarren sailkatu ziren.

Igandean, errelebo probak izan ziren, eta Euskadi ordezkatuz, Ioseba eta Imanol Rojok, Irungo Maialen Lopez lagun zutela, zilarrezko domina lortu zuten, Herrialde Katalanen atzetik. Manex Begiristainek ere, Euskadiko hirukotean parte hartu zuen, eta hirugarren postua lortu zuten.

## Aragoiko taldean, tolosarrak

Bestetik, Aragoiko taldean lehia-tu diren Ane Gorostegi eta Irati Izagirre tolosarrek, infantil mailan, bina urrezko domina lortu dituzte.

Ane Gorostegi klasiko estiloan eta errelebotan, eta Irati Izagirre estilo librean eta erreleboan aritu ziren. Aurten, Espainiako txapelketak izan duten berezitasun nabarmenena zirkuitua izan da. Ohiko zirkuituan elurrik ez, eta 2000 metrotik gora kokatzen den La Tucan ospatu dira. Altura handia, zirkuitu gogorra eta oso teknikoa izan dituzte.

## GERENTEA

Erreferentzia: (11-ETXG)

## Eskatzen da:

- Ingeniaritza, Enpresa Kudeaketa edo Ekonomia arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orri eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balokidea den euskara maila.

## Kontuan hartuko da:

- Logistika, kudeaketa eta antolaketa lanetan eskarmentua.
- Talde gidaritza esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

## Eskaintzen da:

- Kontratu iraunkorra.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainen.

Interesa dutenek curriculum, martxoaren 31a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara bidali: [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak lanpostu hau bete behar du:

## BANATZAILEA/BUZONEATZAILEA LEITZAN

## Lan baldintzak:

Goizeko 7:00etatik 11:00etara.  
Astean 4 egun. Asteartetik ostiralera.

Interesatuak deitu lehenbailehen  
**943-30 35 33** telefono zenbakira.

## Laskorainek garaipen erosoan lortu du Orioko Tabernaken aurka

Tolosarrek 9-5 irabazi zieten oriotarrei; 0-2 galtzen hasi baziren ere, azkar eman zioten itzulia partidari

**Gorka Amatrain** Tolosa

Aurreko partidaren Villabonan gertatutako irristada mingarriari modu bikainean eman zion erantzuna Laskorainek joan den larunbatean Usabalen Orioko gipuzkoararen aurka merezitako garaipen erosoan lortuaz. Saillkapeneko azken postuan kokatuta dagoen kostako taldeak borrorakako grina eta harrotasuna erakutsi zituen minutu luzeetan zehar, baina bien artean dagoen aldeak, azkenean logikaren bidetara lekua utzia, Javiren mutilen albora bideratu zuen garaipena: tolosarrek 9-5 irabazi zieten.

Emaitzak erakusten duen nagusitasuna ukaezina izan zen kantxa gainean, baina suposa daitekeen neurketa lasaia ere izan zituen bere une arriskutsu eta trabatuak. Ez alferrik, eta etxeko kalterako, oriotarrek Aratzen atea birritan zulatzea lortu baitzuten epaileek txilibitua jo bezain pronto. Partida maldan gora ipini zen berehala.

0-2ko baten aurka oldartu beharra izan zuten horitxoek hasiera-hasieratik, baina segidan etorrriko zen berdinketa Gil eta Barriolaren eskutik. Kolpe honek Orioko besoak jaitziazarazi zituen, eta jarraian, Barriolak beste bitan eta Bellosok egindako gole esker, 5-2 aurreratu ziren tolo-

sarrak aldageletarako bidea hartu aurretik.

Bigarren zatia hasi bezain azkar, Barriolak bere arratsaldeko laugarren golarekin aldearengotatu zuen. Ordutik amaiera arte, kanpotarren gol bakoitzari etxekoaren sareratze banarekin erantzun zitzaion. 9-5eko azken markagailua arte gol festa aparta bizi ahal izan zen Usabalo oholaren gainean. Gilek beste bi egingo zituen bere *hat-tricka* sinatuaz, eta Jonikoren azkenak filma itxi zuen.

### Bigarren postuan

Garaipen honekin bigarren postuari eutsiko dio beste astebetetz taldeak, datorren asteburuan Concepto-Createch ahaltsuaren etxera bisita egin aurretik. Lidergoan tinko jarraitzen duten Elgoibarko mutilei aurre egitea ez da erraza izango, baina horitxoek jadanik urrezko orrialde anitzak dituzte idatziak Ikastolako kirolaren liburu sakratuan, eta gututz zurrar da beraien larrua arras garesti salduko dutena.

Larunbatean, Usabalen, Javi delegatua, Javi entrenatzailea, Aratz, Telleria, Barriola, Gil, Joniko, Iosu, Balerdi, Beloso eta Endika izan ziren garaipenaren protagonistak. Beste behingoz Balerdi eta Iosu filialetako jokalarien papera goraiatu beharra dago, lehen taldeak dituen baja ugariak estaltzearen eta deialdiak betetzeaz gain, errendimendu aparta ematen ari baitira beste taldekin batera.

Bigarren taldeari dagokionez, Aitorren taldeak 8-6 galdu zuen Zurt Tabernaren aurka.

## Gazteen mailan oinarrituta eskuratu du Zazpi Iturrik Berria Txapelketa



Zazpi Iturriko arduraduna eta pilotariak, Berria Txapelketako garaikurrekin. ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

Kadeteetan eta jubenetan alde handiz irabazi zuten, nagusien partidaren emaitza balio gabe utziz

**Imanol Garcia** Amezketara

Aurreikuspenak bete ditu Amezketako Zazpi Iturri elkarteak Berria Txapelketan. Faboritoen artean zegoen txapela eramateko, eta horixe bera egin zuten amezketarrek ostiral arratsaldean Hernanin jokaturako finalean Uharteko Iruñearen aurka. Txapelketa guztian bezala, gazteen nagusitasunean oinarritu zuen garaipena. Kadeteetan 10-22 irabazi zuen Zazpi Iturri, eta jubenetan 6-22. Emaitza horiek hirugarren eta azken partidaren emaitza baliorik gabe uzten zuten. Berdin zion partida irabazi edo galdu, txapela Amezketara zihoan.

Xalton Zabala Zazpi Iturriko arduradunak azaldu duenez, «urteko helburu bat betetzea» izan da Berria Txapelketa eskuratzeko. «Elkarte moduan eta talde moduan jokatzeko den txapelketa bakarra da». Ezberdintasun hori pilotarietzat aberatsa dela dio: «Partida besteengandik ere jokatzen dute. Talde bezala funtzionatzen dute pilotariak. Gu bezalako elkarte txiki batentzat garrantzitsua da».

### Bi txapelketa

Finalean, kadete mailan Altuna eta Irribarria aritu ziren. Jubenetan, Gallurralde eta Jaka izan ziren jokatu zutenak. Nagusietan, Arzelus eta Garmendia aritu ziren. Finala bukatu ondoren, Hernanin bertan ospatu zuen garaipena taldeak. «Txapelketa hasi zenetik, pilotariak beti buruan izan dute. Taldeko txapelketa denez, elkarrekin entrenatu dute eta hurrengo partidei buruz

hitz egiten zuten. Beraien artean elkartu egin dituzte».

Hernanin lortutakoarekin, bi txapel ditu Zazpi Iturri Berria Txapelketan. Lehenengo urtean lortu zuen aurrena, eta zortzigarren aldiz antolatu den honetan eskuratu du bigarrena. Bi finaletan izan da, eta biak irabazi ditu Amezketako elkarteak. Finalerdietara beste bi aldiz iritsi da Zazpi Iturri.

Aurtengo finala uste baino errazago lortu dute. «Espero genuen estuxeagoa izango zela», dio Zabalak. Kadeteen eta jubenetan partidak irabaztea zen helburua, ikusita nagusien mailan oso onak zirela beste taldekoak. Batez ere jubenetan oso erraz irabazi genuen».

Zabalak Irribarria kadeteen mailako atzelariak egindako partida nabarmendu du: «Onena izan zen. Agindu egin zuen eta Altunari asko erraztu zion tantoak amaitzea».

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA Txina Inperiala**

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neurrako hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK**

902 402 900

www.funerariavascongada.com



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,  
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIK**

■ **Aduna.** Asvineneak afrikar dantzen ikastaro trinkoa antolatatu du asteburu honetarako. Berrez, larunbatean bakarrik egin behar zuten tailerra, baina klasa bete denez, igandean, apirilak 3, beste saio bat eskainiko dute 16:30etik 19:00etara. Ikastaroak 20 euro balio du, baina bazkide direnek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Izena [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) webgunean edo 665 738 081 telefono zenbakira deituta eman daiteke.

■ **Ibarra.** Txontxo udal ludotekak begiraleak behar ditu udarako. Eskaerak egiteko derrigorrezkoa da begirale titulua eta

EGA izatea. Curriculumak [ibarra@ikastola.net](mailto:ibarra@ikastola.net) helbidera bidali behar dira '2011ko begiraleak' gaia zehaztuz apirilak 8 baino lehen.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Urte askoan!**  
**Maddi Iturriotz Alkorta.**  
Atzo 8 urte! Urte askorako familiaren partetik!



**Urte askoan!**  
**Hodei Goikoetxea Altuna (Alegia).**  
Etxeko txikiak atzo, 3 urte bete zituen. Zorionak aita, ama eta Ugaitzen partetik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



**Irudia Tolosa**



**ZUMARDIAUNDI INAUGURATU DUTE**

Hilabeteak itxita egon eta gero, herenegun zabaldu zuten Tolosako Zumardiaundi berria, nahiz eta Ibarra San Inazio auzoaren inguruan dagoen sarrera itxita dagoen oraindik. Aisialdirako gun berria inauguratzeko herritar ugari bildu ziren

arratsaldean eginiko ekitaldian. Musika egon zen Koskorrena jazban taldearen eskutik, eta txistor pintxoak ere banatu zituzten bertaratutakoentartean. Udaleko arduradunak ere egon ziren inaugurazio ekitaldian. S. GOMEZ

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO** hitza info  
bertako egunkaria  
**egin zaitez harpidedun!**

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)  
[www.leitzaaldea.hitza.info](http://www.leitzaaldea.hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behe, atzea. 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

•NA: \_\_\_\_\_

•Lanbidea: \_\_\_\_\_

•Jaioteguna: \_\_\_\_\_

•Helbidea: \_\_\_\_\_

•Herria: \_\_\_\_\_

•P.K.: \_\_\_\_\_

•Tel.: \_\_\_\_\_

•Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

•Kontu zenbakia: